

EZAGUTU DEZAGUN LESAKA 2024

3-6. mailakoentzako GALDETEGIA



Izen abizenak: _____ Maila: _____

1. Zeintzuk izan dira V. LML-ko bazkide irabazleak?
2. Orzaizenea etxeko atarian ageri den lan tresna ze lanetarako erabili ohi da?
3. Erdian burdinezko barra bat duten zenbat lehiotxok argitzen dute Lesakako elizako kanpandorrerako bidea?
4. Arbolaren Eguneko unitate didaktikoan landu zenutenez, landare batek lau elementu behar ditu hazitzeko. Zeintzuk?
5. Zenbat banku daude Lesakako Andra Mari Egoitzako patioan?
6. Korrikako zenbatgarren kilometroa erosi du aurten Beti Gaztek?
7. Idatz itzazu egun Lesakako Herriko-etxeko idazkaria denaren izen-abizenak.
8. Duela 25 urte Beti Gazteko sokatira taldea lehendabiziko aldiz munduko txapeldun izan zen. Aurten ere munduko txapelketa jokatu da eta, berriz ere, munduko txapeldun izatea lortu dute. Aurtengo tiralarien artean baziren duela 25 urte munduko txapeldun izan zirenak. Idatz itzazu tiralari horien izen-abizenak?
9. Harizko zenbat mahai daude Fraingo kaskoan?
10. Banbiren antza handia duen zein animalia bizi da Lesakako mendietan?
11. Zein fraileren omenez egin zuen Jorge Oteizak Agiña mendian dagoen eskultura?
12. Zein urtetan inauguratu zen Lesakako hilerriaren zati berria?
13. Abenduko larunbat arratsalde batean Frain mendiak su hartu zuen. Zein urtetan izan zen?
14. Nola izena du Lesakako sarrerako serreraren ondoko etxeak?
15. Arginenbordako erreka, zein udalerriren mugan dago?

16. Zenbat arku ditu berriki zaharberitu duten Bereauko Erdi Aroko zubiak?

17. IKAk Lesakan duen egoitza, zein etxetan dago?

18. Nola izena zuen Mastegi eraiki aurretik Beti Gazteko futbol taldeak jokatzen zuen zelaiak?

19. Zein harri mota du "Kopakarri" k?

20. Bianditz mendian badago musika tresna batzuen eskultura bat. Zein musika tresna dira?

21. Izenda itzazu Lesakaren mugakide diren udalerriak.

22. Non edaten dute Lesakako San Anton urtegiko ura?

23. Lesakako zein bertsolarik kantatu zuen 2023ko abenduan Iruñean ospatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean?

24. Zein sinbolo ageri dira Lesakako armarrarian?

25. Nortzuk egin zuten Lesakatik Oiartzunera doan errepidea?

26. Zein da San Ferminetan musika bandak eta txistulariek jotzen duten Santiago Irigoienek konposatutako doinua?

27. Ze izen du garai batean Xaruta Ostatua zegoen etxeak?

28. Udaberrian arrosa kolorez janzten diren zenbat Prunus Pisardi, edo Aran Gorri, daude Plaza Zaharrea?

29. Herriko zein musika taldek bete zituen 10 urte 2023an?

30. Ze etxetakoa da Pantxika?

